Eskimoren Ebertstek (1)

# Eskuararen Ehortzetak.

Eskual Herria eri dela aspaldi entzuten da alde guzietarik. Anhitz erremedio mota hatzemaiten dituzte batzuk ala bestek. Nik ere erremedioetan konfientzia izan dut luzaz. Gogoeta artziaren bortxaz huna zertaratu nizan: eritasun hori ezin sendatuzkena da; Eskual Herria ehortziari buruz doa, izan dadin mintzairaz ala ekonomiaz.

Eskuararen alde direnek, denek bi mintzaire behar dituzgula diote: Eskuara eta Frantsesa edo Espagnola. Nik ere hala uste izan dut. Bainan beha zure itzulian. Nun dira mundian, bi mintzaire ibiltzen dituzten populiak? Nun dira Eskuara eta Frantsesa berdin mintzatzen dituzten Eskualdunak? Badira frango bi edo hiru mintzaire badazkitenak bainan bat beizik ez dute beretia hamarretarik bederatziek. Biak badazkite, biak konprenitzen, biak mintzatzen, behar delarik. Hiri horietan ere "interpretes" horiek biziki untsa mintzatzen dira angleses edo españoles.

lanak manatzen zeelarik - Bainan beren mintzairia Frantsesa dute -

Gisa berian Eskualdun anhitzek bi mintzaire badazkite bainan bi horietarik bat nagusi da - Jende xeheak badira, Eskuara, eskolatiak badira Erdara -

Laborari batek erretor bat hatze-maiten badu frantsesa mintzatuko du eta badin bizki untsa - Bainan usaian eskuaraz mintzatuko da -

Apez bat, erretor bat, mediku bat elgarretaratu bezen fite erdaraz mintzatuko dira, hura baita zinezko beren mintzai-ra, hura baitute aisenik mintzatzen - Eskuara ere mintzatuko dute, bainan behar ordietan : predikuz batian, laborari batekin eta hola -

Norbeit diren guziak, izanik ere eskualdunak (bainan gehienak ez dira hala Eskual Herrian) erdaraz mintzo direnaz gain, jende xehia, nahi tez erdarara lerratuko da - Harek ere "Norbeit" nahi du izan - Bere haurra ~~ed~~ erdaraz mintza-

arrasiko dut, "norbait" horiek bezen untsa jakin dezan. Leitzione bat biga baino aiseago ikasiko ditzen bezala ez dira mintzaire bat, biga baino errexkiago beretuko.

Gisa hortan, laster, haur bihibatek ez du gehiago eskuararik jakinen anhitz denbora gabe, ala arrotzekin, ala Eskuara ez dakiten Eskualdun lagunekin (eta gero ta gehiago dira) erdaraz mintzatzera bortxatia izanen baita.

Ez da haatik ez hunatik, gauzak diren bezala ikusi behar dira. Ez du balio amentsetan artzia.

<u>Eskuara eta gure buruzagiak</u>

Ene iduriko gure buruzagiek aras untsa konprenitia dute gauza hori. Ba dira ba horietan eskualtzale agertzen direnak; ez eskuara salbatzen ahal dela uste dutelakoan. Boz zonbaiten biltzeko estakurian? Batzuendako berdin egia ditake. Gehienek ez dukete holako faltsukeriarik gogoan.

Jaz galdu dut ene amatxi.
Sei hilabete hartan bazinakien ez zela

jeus itekorik - Halere ehun mila lia phasmen erremediuak erosi ditiogu = Amatxik ez sobera sofritzeko eta bereziki amatxi maite baigunien eta nahi baigunien ahal bezen luzaz gurekin atxiki -

Gisa berean gure burujagiak eskuararen umeak dira - Eskuara maite dute - Jakinik ere hiltzera kondenatia dela, ahal bezen luzaz, bizirik atxiki nahi dute - Hila ikusten ez badute, heiek bizi direno eskuara ere bizi egoiten bada, batere ez ditazke samur izanen -

Pompidouk, Garazin eman dauku, gure mintzaire eta ohiduraeri atxikiak izan behar dugula - Denbora berian, radioan, jaz baino denbora gutiago eman dauku - Gutiago ~~emaiti bata~~ emaiteko orde, doblia eman balu ere ez zuen eskuararen bizia biziki luzatuko - Bainan hola ageri du zer duen zinez gogoan - Eta ez baita nonahi, guri ere zonbait phentsaketa egiaraziten ahal dauku -

Kasetan ikusi dut norbait mintzatu zakola eskuararen gerotz – Baiman burutz buru, gordeka, gauza seriosetaz mintzatu ondoan –

Lecannet ere izan zauku hemen gaindi, bozketa, eske – Hogoi ta hameka eta esku zinnen bratz – Altaa gostiansko mintzatu da eskuararen Kontra; bazakien ez zuela lotz bihi baten galtzia hiriska-tzen – Bazinen han Eskual Herriko burruzagi andana bat – Bat ere ez zaio oldartu. Anas untsa baitakite zertan giren –

Ez drea Eskualtzaleen Biltzarreko Jaun haundi batek, Kaseta bat burian buru erdaraz agerrarazten? Eskuaraz fititzen delakoan? Ez! Despendiua itera eta leitkria nahi baitu izan!

Eliza bera (altaa jinkuak daki ez denez "haizia norat, Eliza harat") ez dea bide berian ari! Beha meza "hybride" horiek, erdia frantsesez, erdia eskuaraz uda huntan (eta urthe guzian zonbait lekhutan), Eskualdun gazteriaren phesta dena frantsesez eta holako –

Aski garbi ~~ag~~ ageri da zertan giren, ez du balio ilusionerik izaitia. Eta beraz ez litakeia hobe, eskuararen alde galtzen ditugun indarrak, hobeki balia ditzagun beste zerbeitetan?

B. A.